

PRENTSA OHARRA
2008-06-20

HAMAR BISITARITIK BEDERATZIK LEGEBILTZARREKO BIKTIMEI BURUZKO ERAKUSKETA GOMENDATZEN DUTE

Eusko Legebiltzarrean izan diren 5.264 bisitarien artean, hamarretik bederatzik beren lagunei edo senitartekoei gomendatuko liekete "Víctimas-Biktimak" erakusketa ikustea. Erakusketa hori Eusko Legebiltzarrak antolatu du, terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazio ingururekin eta hedabiderekin, ETArekin terrorismoaren biktimak omentzeko. Legebiltzarreko korridoreetatik ibilitako herritarrek erantzun duten galdeketatik ateratako ondorioz garrantzitsua da aipatutako gomendioa. Erakusketa Euskadi, Estatuko eta beharbada Europako erakundeetan egongo da ikusgai.

Legebiltzarreko erakusketa ikustera banaka etorri diren gehienak asteburuetan bertaratu dira. Taldeak, ordea, astegunetan. Erakusketa apirilaren 12tik ekainaren 20ra bitartean egon da zabalik, osoko bilkuretako egunetan izan ezik. Guztira, 83 taldek ikusi dute; hau da, 3.807 bisitariak. Banakako bisitariak 1.202 izan dira. Gainontzeko 260ak talde berezietako kideak izan dira, ikustaldi-programetako parte-hartzaileak. Programa horiek Euskadiko elkarte eta enpresentzat antolatu zituen Legebiltzarrak, haiei zabalkunde elektronikoko bere programak eta bere berrikuntza-estrategia ezagutzera emateko.

Bisitari berezien artean, egun Legebiltzarraren egoitza den institutu zaharretik pasa dira Giza Eskubideetako Arazoetarako NBEko txostengilea, Kongresuko lehendakaria, hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusietako mahaiak, Txileko lehendakari ohia eta Argentinako Diputatuen Ganberako ordezkariak eta lehendakariordea. Baita, gainera, Euskaltel eta Aernova enpresetako administrazio-kontseilutako kideak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko kideak eta Eudeleko arduradun nagusiak.

Erakusketa ikusi dutenen artean, nabaritzekoa da hamarretik ia zortzi lehenengo aldiz hurbildu direla erakundearen egoitzara. Horien erdia-edo bertaratu dira erakusketari buruzko albisteak entzun, irakurri edo ikusi ostean; % 20 aldeztatik aurretik etorritakoen gomendioei jarraituz etorri dira; eta % 5ek Legebiltzarraren webgunearen bidez izan zuten erakusketaren berri. % 78 txundituta gelditu da, eta erdia-edo terrorismoari buruzko bere iritzia aldatzen hasi da erakusketaren ondorioz. Gehienek mina sumatu dute (% 44k), edo kaltegileen aurkako amorrua (% 39,6k), edo kaltetuenganako enpatia (% 16k). % 60ren ustez, erakusketak terrorismoari zilegitasuna kentzen lagunduko du.

Erakusketa hara eta hona erraz eramateko eta erraz jarri eta kentzeko diseinatu da; horrela, joan-etorrien programa handi bat antolatu ahal izan da. Izan ere, legebiltzarrak baldintza hori jarri zuen. Legebiltzarreko Lehendakariak "Biktimak-Víctimas" erakusketa Europako erakunde batera eramateko



ibilbide bat koordinatzen ari da orain, estatu- eta eskualde-mailako hamabost erakunde baino gehiagorekin batera.



NOTA DE PRENSA
20-06-2008

NUEVE DE CADA DIEZ VISITANTES RECOMIENDAN LA EXPOSICIÓN SOBRE VÍCTIMAS DEL PARLAMENTO

Nueve de cada diez, de los 5.264 visitantes que han desfilado por la sede del Parlamento Vasco, recomendarían a sus amigos o familiares una visita a la exposición "Víctimas-Biktimak" organizada por el Parlamento Vasco en colaboración con las asociaciones y fundaciones de víctimas del terrorismo y medios de comunicación para homenajear a las víctimas del terrorismo de ETA. Esta es la conclusión más destacable de una encuesta que han contestado las ciudadanas y ciudadanos que han recorrido los pasillos de la cámara. La muestra inicia en julio un largo recorrido por las instituciones de Euskadi, el Estado y posiblemente Europa.

Los visitantes individuales han apostado, en su mayoría, por acercarse hasta el Parlamento a visitar la exposición durante los fines de semana, mientras que los grupos han funcionado los días de labor. La muestra ha permanecido abierta entre el 12 de abril y el 20 de junio, exceptuando los días en que se celebraba sesión plenaria. En total han sido 83 los grupos que han recorrido la muestra, sumando un total de 3.807 visitantes. El número de visitantes a título individual ha ascendido a 1.202. Las 260 personas restantes formaban parte de grupos especiales que participaban en algunos programas de puertas abiertas organizados por la Cámara para difundir entre el tejido asociativo y empresarial de Euskadi sus programas de apertura electrónica y su estrategia de innovación.

Entre las visitas ilustres, han pasado por el antiguo instituto que acoge la sede parlamentaria el Relator para Asuntos de Derechos Humanos de la ONU, el presidente del Congreso, las mesas de las Juntas Generales de los tres territorios históricos, el ex presidente de Chile, o una delegación de la Cámara de los Diputados de Argentina encabezada por su vicepresidenta. Además, miembros de los consejos de administración de empresas como Euskaltel y Aernova o del Consejo Superior de Cooperativas, o los máximos responsables de Eudel.

Entre los visitantes que pasaron por la muestra destaca el dato de que casi ocho de cada diez era la primera vez que se acercaban a la sede institucional. Aproximadamente la mitad lo hicieron tras escuchar, leer o ver en los medios noticias relacionadas con la exposición, el 20 % siguió recomendaciones de visitantes anteriores, y un 5 % conoció la muestra en la web del Parlamento. El 78 % dijo sentirse impresionado por una exposición que a cerca de la mitad le ayudó a cambiar su visión sobre el fenómeno terrorista, y les sugirió mayoritariamente dolor (44 %), rabia hacia los causantes del daño (39,6 %), o empatía hacia los afectados (16 %). El 60 % piensa que la muestra contribuirá a deslegitimar el terrorismo.

La exposición está diseñada para que pueda transportarse y montarse y desmontarse con facilidad, lo que permitirá abordar un ambicioso programa de itinerancia, uno de los requisitos que el Parlamento



marcó para esta iniciativa. En la actualidad la Presidencia de la Cámara coordina con más de quince instituciones estatales y regionales un recorrido que podría llevar la exposición "Biktimak-Víctimas" también a una institución europea.